



# EIBAR

Juan San Martín Liburutegia  
Biblioteca Juan San Martín

# JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA

2025eko MEMORIA



## Edukia

|                                                            |    |
|------------------------------------------------------------|----|
| LABURPENA IRUDIETAN.....                                   | 3  |
| 1. Liburutegia 2025ean. Begiratu batean .....              | 4  |
| 2025eko datuak .....                                       | 4  |
| Urteko mugarriak.....                                      | 5  |
| 2. Irakurzaletasuna bultzatzea .....                       | 5  |
| 2.1 Haurrak, gazteak eta familiak .....                    | 5  |
| Ikastetxeekin batera lankidetzan aritzea .....             | 5  |
| Irakurketa-klubak .....                                    | 8  |
| Umeentzako eta gazteentzako jarduerak.....                 | 11 |
| 2.3 Pertsona helduak .....                                 | 14 |
| Irakurketa-klubak eta topaketa literarioak.....            | 14 |
| Ikastea bizitzan zehar .....                               | 21 |
| Liburuak ikusgai eta gida tematikoak (interesguneak) ..... | 22 |
| 3. 2025eko erabilera-zifrak .....                          | 25 |
| Bisitak .....                                              | 25 |
| Bazkideak .....                                            | 25 |
| Bazkideak adinaren arabera .....                           | 25 |
| Irakurle aktiboak .....                                    | 26 |
| Bilduma .....                                              | 26 |
| Eskuratutakoaren jatorria .....                            | 26 |
| Desiratak .....                                            | 27 |
| Maileguak.....                                             | 27 |
| Helduen atala .....                                        | 27 |
| Umeen atala.....                                           | 28 |
| Dokumentuaren hizkuntzaren arabeko mailegua .....          | 28 |
| Adinaren arabeko mailegua .....                            | 29 |
| Sexuaren arabeko mailegua .....                            | 29 |
| Helduen atalean gehien lagatakoa .....                     | 31 |
| Euskarazko eleberria .....                                 | 31 |

|                                                      |    |
|------------------------------------------------------|----|
| Gaztelaniazko eleberria .....                        | 32 |
| Pelikulak eta telesailak.....                        | 33 |
| Musika .....                                         | 33 |
| Haurren atalean gehien lagatakoa.....                | 34 |
| Euskaraz: .....                                      | 34 |
| Gaztelaniaz.....                                     | 35 |
| Gehien lagatako filmak .....                         | 36 |
| Gehien lagatako musika.....                          | 36 |
| Liburutegien arteko mailegua .....                   | 37 |
| Automailegu-zerbitzua.....                           | 37 |
| eLiburutegia mailegu digitaleko zerbitzua.....       | 38 |
| Interneten eta Ikasketa Gelaren zerbitzua .....      | 41 |
| Sare sozialak:.....                                  | 41 |
| Umeen liburutegiko bloga .....                       | 42 |
| Web-orria .....                                      | 42 |
| OPAC katalogoan egindako kontsultak.....             | 43 |
| Antolatutako jardueretan izandako parte-hartzea..... | 43 |
| 4. Ekonomia-gestioa .....                            | 44 |
| Bilduma .....                                        | 44 |
| Finantzaketa.....                                    | 44 |
| Irakurketa bultzatzeko jarduerak.....                | 44 |
| Finantzaketa.....                                    | 45 |
| Teknologia eta ekipoen mantentze-lanak. ....         | 45 |
| Finantzaketa:.....                                   | 45 |
| Eibar Aldizkaria argitaratzeko dirulaguntza .....    | 45 |
| 5. Jasotako formakuntza .....                        | 46 |
| 6. Zeintzuk garen.....                               | 47 |
| Ekipoa.....                                          | 47 |

## LABURPENA IRUDIETAN

Liburutegiaren datu eta jarduera aipagarrienak 2025ean, bideo honetan



## 1. Liburutegia 2025ean. Begiratu batean

Juan San Martin Liburutegia **ikaskuntzarako, kulturarako eta elkarrekin topo egiteko** gure herriko toki nagusienetako bat bihurtu da 2025ean, fisikoaren eta digitalaren arteko hesiak gaindituz. **90.969 dokumentu**ko bildumarekin (3,31 biztanleko), gure misioak liburuaren zaintza gainditu du, eta gure jardura informaziorako sarbidea erraztera, adin guztietan irakurtzeko ohitura sustatzera eta Eibarko herritarrei kultura- eta hezkuntza-baliabideak eskaintzera bideratu dugu.

2025ean zehar, Liburutegiak bere honako eginkizun hauek bete ditu:

- Belaunaldien arteko elkarbizitzarako leku bat bihurtu da,
- Ikastetxeei laguntza eman die,
- Etengabeko sozializazio- eta ikaskuntza-leku izan da,
- Kultura-, berdintasun- eta jasangarritasun politiken eragile aktibo izan da.

### 2025eko datuak

Aurten, datuak esanguratsuak dira: **119.345 bisita** lortu ditugu, eta dagoeneko **13.352 bazkide** ditugu, alegia, gure bizilagunen<sup>1</sup> ia erdiek (% 48,58) konfiantza dute gure zerbitzuetan.

Mailegu-datuetatik haratago —% 7 igo dira 36.900 dokumentu gainditzera—, gure programazioak erantzun soziala dauka. **Giza Liburutegia** proiektuak, esaterako, aukera eman digu elkarrizketaren bidez aurreiritziak ezabatzeko; era berean, **haurrentzako irakurketa-klubek** —familiek oso ondo baloratzen dituzte, eta bete egiten dira— jarraitzen dute etorkizuneko irakurleak prestatzen.

- Egindako bisitak: **119.345**
- Bazkideak: **13.352**, eta 535 harpidetza berri. Biztanleriaren **48,58%**
- Maileguak: **36.962**, egunean 146 batez beste. % 7ko igoera 2024. urtearekin alderatuta
- Jarduerak: **214**, **2.807** parte-hartzaileekin. % 7,26ko igoera parte-hartzean.
- Bilduma: **90.969** dokumentu, **3,31** biztanleko.

---

<sup>1</sup> Biztanleria 27.484 (Kontsulta INE, 2026-01-9)

### Urteko mugarriak

- **Irakurketa sustatzeko programa egonkorrak** indartzea, bereziki haurtzaroan.
- Parte-hartze altua **irakurketa-klubetan eta jarduera komunitarioetan**.
- Liburutegia ikaskuntza **ez-formaleko espazio** gisa finkatzea (hizkuntzak, alfabetizazio informazionala).
- Zerbitzu digitalen eta **liburu arteko maileguaren erabilera altua**.

## 2. Irakurzaletasuna bultzatzea

Irakurketaren sustapena da Juan San Martin Udal Liburutegiaren **ardatz estrategiko**etako bat. 2025ean zehar, **adin guztiei** zuzendutako programa egonkorrak egin dira, arreta berezia jarritz haurrengan, familiengan eta ohiko irakurleengan.

Programazioak hauxek uztartzen ditu:

- Jarduera egonkortuak,
- Sareko lana ikastetxeekin eta elkarteekin,
- Proposamen puntualak efemerideei eta udal-kanpainei lotuak.

### 2.1 Haurrak, gazteak eta familiak

#### Ikastetxeekin batera lankidetzan aritzea

*Programa: Bularretik Mintzora - Mintzoan kux-kux*

#### Hartzaileak:

0-8 urte arteko umeak eta haien familiak, ikastetxeekin lankidetzan.

#### Helburuak:

- Irakurzaletasuna txikitatik bultzatzea, bereziki euskaraz
- Familiak kontzientziaztea umetan irakurtzeak duen garrantziaz
- Txikitatik Liburutegia erabiltzea ohikoa izatea.

#### Garapena:

Liburutegiak kalitatezko bibliografia aukeratzen du, haurrentzako aretoan espazio bereziak antolatzen ditu eta parte hartzen duten ikastetxeekin liburuaren mailegua koordinatzen du.

#### 2025eko emaitzak:

Programan eskuragarri dauden liburuak: 701

Egindako maileguak: 2.875

Haur Liburutegiko familia-erabileraren igoera

### **Balorazioa:**

Programa finkatuta dago, eta zuzeneko inpaktua dauka haur-maileguen igoeran, bazkideen kopuruan eta Liburutegian familiek duten presentzian.

### ***Liburutegi ibiltaria – Biblioteca ambulante***

### **Deskribapena:**

Liburutegiak hainbat lankidetza-programa sustatzen ditu Eibarko ikastetxeekin, "Liburutegi ibiltaria" izen orokorrarekin, irakurtzeko gaitasuna bultzatzeko eta irakurtzeko zaletasuna sustatzeko lankidetza bilatzea helburu duena. Ekimen honetan bisita gidatuak egiten dira, erabiltzaileei formakuntza ematen zai, irakurzaletasuna bultzatzen da liburu-sortak aukeratuz eta mailegatuz, eta gida bibliografikoak egiten dira.

### **Hartzaileak:**


Eibarko ikasleak eta ikastetxeak

### **Helburuak:**

- Irakurtzeko gaitasuna bultzatzea
- Irakurzaletasuna sustatzea
- Baliabideak eskaintzea herriko ikastetxeetako zentroeiei eta liburutegiei

### **2025eko emaitzak:**

**557** liburu igorri dira ikastetxeetara eta **10** bisita gidatu egin dira (**228** neska-mutikok hartu dute parte).



### *Itsaspeko bihotzak erakusketa didaktikoa*

#### **Deskribapena:**

Literatura-gune honetan genero-berdintasuna lantzen da euskarazko haur literaturaren bidez. Horretarako, Galtzagorri elkarteak ibilbide artistiko-pedagogiko bat diseinatu du hezkidetzaren ardatz duena.

#### **Hartzaileak:**

Lehen Mailako 4. Ikasturteko ikasleak eta saio bat familientzat

#### **Helburuak:**

- Literatura kohezitzailea ezagutzera ematea bai neska-mutikoei bai helduei
- Artean eta estetikaren heztearen begirada artistikoa landuz.
- Praktika pedagogiko kohezitzaile bat aurrera eramatea.
- Imaginario kolektiboan dauden sexu- eta genero-estereotipoak gainditzeko aukera ematea.

#### **2025eko emaitzak:**

- 11 saio
- 1 saio familientzat, 30 parte-hartzaileekin.
- 111 neska eta 126 mutiko (237 ikasle)

#### **Lankidetzak:**

Udalaren Berdintasun Arloarekin egiten da Andretxean, eta gastua partekatzen da.



### **Irakurketa-klubak**

### ***Azalerako Ipuinak***

#### **Zer den:**

Irakurketa partekatzeko guneak dira, non literatura esperientziatik eta jolasetik lantzen den.

#### **Hartzaileak:**

1-3 urte arteko umeak, familiekin batera

#### **Helburuak:**

- Haur-literaturarekin lehen kontaktua ezartzea: errimak, haur-kantak, esku-jolasak, eguneroko bizitzarekin zerikusia duten liburuak...
- Etxean irakurtzeko eta elkarrekin irakurtzeko ohitura
- Familiei aditu baten gida eskaintzea, seme-alaben garapenaren lehen etapa hauetan lagun egin diezaien

#### **2025eko emaitzak:**

- 3 talde aktibo
- 24 saio
- 248 parte-hartzaile, 105 neskatila eta 143 mutiko.

#### **Balorazioa:**

Familien balorazioa oso positiboa da, eta izena ematen dutenen kopurua (taldeko) baimendutako gehienekoa izaten da.

Publiko leial bat lortzen da Haur Liburutegian, beste jarduera batzuetan ere (hala nola ipuin-kontaketetan) parte hartzen duena.

### *Liburuen poltsa*

#### **Zer den:**

Irakurketa partekatzeko gune bat da, non literatura esperientziatik eta jolasetik lantzen den.

#### **Hartzaileak:**

4-7 urte arteko umeak, familiekin batera

#### **Helburuak:**

- Familian irakurtzeko giro atsegin bat sortzea, non irakurketaz gozatzea sustatu nahi den.
- Etxean eta elkarrekin irakurtzeko ohitura sustatzea.
- Familiei aditu baten laguntza eskaintzea, kalitatezko bibliografia gomendatu eta liburuak nola erabili irakatsiko duena.

#### **2025eko emaitzak:**

- 3 talde aktibo
- 24 saio
- 203 parte-hartzaile, 127 neskabila eta 76 mutiko.

#### **Balorazioa:**

Familien balorazioa oso positiboa da, eta izena ematen dutenen kopurua (taldeko) baimendutako gehienekoa izaten da.

Publiko leial bat lortzen da Haur Liburutegian, beste jarduera batzuetan ere (hala nola ipuin-kontaketetan) parte hartzen duena.

Hona hemen gogobetetze-inkestan jasotako zenbait ohar:

*"Zorionak programagatik! Nire alabak asko hobetu du komunikazioa, hiztegia, liburutegia erabiltzeko kontzeptua ikasi du "*

*"Esperientzia dibertigarri eta beti harrigarri batetik euskarara hurbiltzeko aproposa da"*

*"Oso ona da, haurren arretari eusten dio eta dinamika handiagoa du, gaiak lantzen ditu, txikiei gogoeta eginarazten die, eskulana momentua pilo bat gozatzen dute, Saroari 10 bat"*



## *Paperezko Hegoak*

### **Zer den:**

Irakurtzeko espazio bat da, non parte-hartzaileek irakurritakoa partekatzeaz gain, esperientzia, jolasa eta sormena lantzen duten.

### **Hartzaileak:**

Lehen Hezkuntzako 3. kurtsoetik Bigarren Hezkuntzako 1.era arteko ikasleak.

### **Helburuak:**

- Ikastetxean programatzen ez diren irakurketak ezagutzea.
- Bakarkako irakurketa taldeko lanarekin aberastea
- Literatura-gozamena eta -sormena sustatzea, irakurmena eta sormen-ariketak uztartzen dituzten tailer bidez

### **2025eko emaitzak:**

- 2 talde aktibo
- 16 saio
- 111 parte-hartzaile, 42 neskatila eta 69 mutiko.



## *Umeentzako eta gazteentzako jarduerak*

### *Ahozko ipuinen saioak (Zapatuko ipuina)*

Urtean zehar haurrentzako 6 ipuin-kontaketa saio egiten dira.

**Helburuak:**

- Irakurzaletasuna bultzatzea ahozko literaturaren bidez
- Aisialdirako aukerak ematea asteburuetarako

**2025eko emaitzak:**

- 6 saio
- 381 parte-hartzaile
- Saioen batez besteko balorazioa, 9,92





### *Irakurketarekin lotutako jarduera ludikoak*

Haur eta Gazteentzako Liburuen Nazioarteko Egunaren harira, jolas bat egiten dugu ekainaren erdialdera arte luzatzen dena: **Jirabira**

#### **Helburuak:**

- Irakurketa modu ludikoan sustatzea.
- Informazioa bilatzea sustatzea jolasaren galderei erantzuteko.

#### **2025eko emaitzak:**

- 84 parte-hartzaile
- Irakurritako 568 liburu, 338 euskaraz eta 230 gaztelaniaz.



## 2.3 Pertsona helduak

### Irakurketa-klubak eta topaketa literarioak

#### *Idazlearekin harixa emoten irakurketa-kluba*

#### **Zer den:**

Bilerak egiten dira hilero aurrez aukeratutako liburuak komentatzeko. Bilerak liburuaren egilea bertan dela egiten dira; idazleak bere ibilbideari buruz eta liburuan erabilitako literatura-prozesuari buruz hitz egiten du, parte-hartzaileen galderei erantzuten die, eta abar. Dinamizatzailerak elkarrizketa bat egiten dio egileari.

#### **Helburuak:**

- Euskaraz irakurtzea bultzatzea
- Literaturan interesa duten pertsonen arteko harremana bultzatzea eta irakurketa aberastea besteen ekarpenekin.
- Aukeratutako liburuen iruzkin-trukea sustatzea.
- Obra baten irakurketan sakontzea

#### **2025eko emaitzak:**

Idazle hauek etorri dira: Arantza Urretabizkaia, Yolanda Arrieta, Lide Hernando, Karmele Jaio, Miren Agur Meabe, Alaitz Melgar, Itxaso Martin Zapirain eta Iker Aranberri Sarasua.

- 8 saio
- 118 parte-hartzaile

**Lankidetza:**

etaKitto! euskara elkartearekiko elkarlanean

***Gaztelaniazko irakurketa-kluba*****Zer den:**

Bilerak egiten dira hilero aurrez aukeratutako liburuak komentatzeko. Bilera horiek pertsona batek koordinatzen eta dinamizatzen ditu, liburuen irakurketa gidatuz.

**Helburuak:**

- Literaturan interesa duten pertsonen arteko harremana bultzatzea eta irakurketa aberastea besteen ekarpenekin.
- Aukeratutako liburuen iruzkin-trukea sustatzea.
- Obra baten irakurketan sakontzea

**2025eko emaitzak:**

- 8 saio
- 143 Parte-hartzaile Pertsona batzuk 2025-2026 ikasturterako itxaron-zerrendan geratu dira



### *Beste irakurketa-klub batzuk eta irakurketa errazeko klubak*

Gure irakurketa-klubez gain, liburuak —eta behar izanez gero, espazioak—lagatzen dizkiegu irakurketa errazeko 4 klubi eta helduen eta emakumeen beste 4ri.

Pagatxa elkarte, Litertxoko, Debabarrena Untzaga, Goyeneche Fundazioa, Egogain, San Andrés, Agifes eta Andretxea.

### **2025eko emaitzak:**

- Liburutegian egindako irakurketa-saioak: 39, 262 parte-hartzailerekin.
- 24 liburu-sorta, eta 298 liburu.



### Liburu-aurkezpenak

Martxoan, maiatzean, urrian eta abenduan egin dira, eta 53 lagun egon dira.

#### Aurkeztutako liburuak:

1. *Y el pirata creó el mar.* Francisco Romero
2. *Pimu ausarta.* Nagore Taboada, Isabel Sebastián
3. *Toponimia eusquérica en el mundo.* Jose Maria Ugaldea Duralde
4. *Anton dentistarenean.* Ane Gastesi Larrañaga





*Programa bereziak zenbait efemeride direla-eta*

### **Liburuaren Nazioarteko Eguna**

Helduentzako ipuin-kontaketa saioa, Virginia Imazen eskutik.

17 lagun egon ziren.



## Liburutegien Eguna

*Gabriel Arestirekin* antzezlanak, Kandido Urangak eta Iñaxio Tolosak sortua, Gabriel Aresti Seguirolaren heriotzaren 50. urteurrenaren harira.

Ikusleak: 48



## Giza Liburutegia

### Deskribapena:

Liburutegia elkarrizketarako eta interakziorako espazio gisa.

Giza Liburutegiak aukera ematen du **estereotipatzen** diren pertsonak “irakurtzeko”, haien atzean dauden historiak ezagutzeko eta gure gizartean sustraituta dauden **aurreiritziak** hausteko. Ekimen honen bidez, oso bizimodu desberdinak dituzten **pertsonen arteko elkarrizketa** errazten da, bereziki beste espazio batzuetan kointziditzeko aukerarik ez duten pertsonen artean. Hitz batean, **liburutegiak sozializazio-tokiak** dira.

Egitasmo honetan, liburuak ez dira ohikoak, baizik eta **beren esperientziak partekatzen dituzten pertsonak**. Parte hartzen dutenek aukera izango dute liburu horiek “maileguan hartzeko”, eta **elkarrizketa lasai eta ireki bat** izateko haiekin.

### Helburuak:

- Bazterkeria eta desberdintasunak gizartean jarraitzen dute, eta horiei aurre egiteko, **liburutegiek espazio ireki eta inklusiboak izan behar dute**, elkarriketa, errespetua eta elkarrekiko ulermena bultzatzen dutenak. Funtsezko tresnak dira autoeraikuntzarako eta komunitatearen kohesiorako, eta berdintasuna eta bizi-baldintza duinak bultzatzen dituzte.
- Kulturak **desinformazioari eta gorroto-diskurtsoei aurre egiteko** ahalmena du, eta funtsezkoa da pentsamendu kritikoa garatzeko. **Giza Liburutegia tresna baliotsua da**, dibertsitatea baloratzeko, elkarriketa sustatzeko eta aurreiritziak hausteko.
- Herritarren parte-hartzea, **sormenari laguntzea eta zentsuraren aurkako borroka** funtsezko printzipioak dira kultura-aniztasuna sustatzeko. Gainera, ezinbestekoa da erakunde publikoen eta eragile sozialen arteko lankidetzaren aldaketa soziala sustatzeko.
- Azkenik, **liburutegiak eta kultura etxeak funtsezko zerbitzu publikotzat hartu behar dira**, eta beharrezkoak diren baliabideak bermatu, informazioa, hezkuntza eta kultura denentzat irisgarri izan daitezen.

#### Lankidetzaren:

Udalaren Immigrazio eta Kultura Aniztasunaren Unitatearekin elkarlanean

#### 2025eko emaitzak:

25 lagunek parte hartu zuten Giza liburuak Italiatik, Sahararik, Brasildik, Perutik eta Nepaletik etorritako 5 pertsona izan ziren.





### **Ikastea bizitzan zehar**

### ***Meetings at the Library – Réunions dans la Bibliothèque***

Jarduera honetan bilerak egiten dira hizkuntzak lantzeko (ingeleza eta frantsesa). Liburutegia erabiltzen da hizkuntza lantzeko topaleku gisa, gaurkotasuneko edozein gairi buruz hitz egiteko aitzakiarekin.

### **Helburuak:**

- Liburutegia erabiltzea hizkuntzak modu ez-formalean ikasteko.
- Hizkuntzak ikasteko material egokia erostea proposatzea.
- Hizkuntzak ikasteko Liburutegiak duen funtsa erabiltzea.

- Liburutegiko erabiltzaileen esperientziaz eta ezagutzaz baliatzea.
- Harreman sozialak sustatzea: Liburutegia sozializazio gune bihurtzea.
- Gure erabiltzaileen artean interesa pizten duten jakintza-esparruei bide ematea.
- Liburutegia, hizkuntzen mintza-praktikaren bidez, lan-profila hobetzeko toki gisa erabiltzea.
- Jarduera ikaskuntza formalaren osagarri gisa planteatzea, eta ez haren ordeko.

### 2025eko emaitzak:

- 61 saio
- 496 lagunek hartu dute parte



### Liburuak ikusgai eta gida tematikoak (interesguneak)

Izan efemerideren baten urteurrena, izan intereskotzat jotzen dugulako, apaletatik ateratzen ditugu liburuak eta Liburutegiaren sarreran jartzen ditugu, haiek irakurtzeko gonbitea eginez.

### Interesguneak 2025ean

- Urtarrila: “Sentimenduak eta emozioak” (Haur Liburutegia)
- Otsaila: “Itsaspeko bihotzak” erakusketa didaktikoaren bibliografia
- Martxoa:
  - 8M, “Bizimodu duinak pertsona guztientzat eta edonon” + [irakurketa gida](#) (Haur eta helduen liburutegiak)
  - Oskar gehien jaso dituzten pelikulak
  - Antzerkia zineman
  - Poesiaren Nazioarteko Eguna
  - Down Sindromearen Nazioarteko Eguna
- Apirila:
  - Oporrak, txangoak, ibilaldiak

- Oraindik ez dituzu irakurri? Emaiezu beste aukera bat
- “Ondo pasatu oporretan, irakurriz eta jolastuz” [irakurketa-gida](#)
- Mario Vargas Llosa (1936-2025)
- “Defendatu hezkuntza, itzali larrialdia” + [irakurketa-gida](#)
- Maiatza:
  - Giza Liburutegia: Brasil, Sahara, Italia, Nepal, Perú
  - Familien Eguna: familia-aniztasunari buruzko ipuinak
  - Altxau Burua: Teknologia eta osasun mentala + [irakurketa-gida](#)
- Ekaina:
  - LGTBI kolektiboaren aldeko kanpaina+ [irakurketa-gida](#)
  - Ondo pasa udan, irakurriz eta jolastuz + [irakurketa-gida](#)
- Uztaila:
  - Joxe Azurmendi, 1941-2025
  - Jose María Guelbenzu, 1944-2025
- Iraila:
  - Dena ez da literatura (entsegua eta dibulgazio-lanak)
  - Pipi Galtzaluze, 80. urteurrena
- Urria:
  - Asteklima + [irakurketa-gida](#)
  - Gau Beltza
- Azaroa:
  - Altxau Burua: Teknologia eta osasun mentala + [irakurketa-gida](#)
  - 25 N: Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna + [irakurketa-gida](#)
- Abendua: Euskararen jatorria: eztabaidarako bibliografia + [irakurketa-gida](#)

### Lankidetzatza:

Udalaren Berdintasun Saila, Euskara Saila, Egoazia, Immigrazio eta Kultura Aniztasun Unitatea, Ingurumen Saila, Altxau Burua Eibar.





### 3. 2025eko erabilera-zifrak

#### Bisitak

- **119.345** pertsona
- Batez bestekoa eguneko: **431** pertsona
- Asistentzia ordutegi bereziak (eguerdian irekia): **2.627** pertsona

*Liburutegian jende asko ibiltzen da, batez ere arratsaldeko ordutegian.*

---

#### Bazkideak


Bazkideak, guztira: **13.352**, biztanleriaren % **48,58**. **6.034** gizonak dira eta **7.204** emakumeak.

Alta berriak 2025ean: **529** (**241** helduak dira eta **285** 14 urtetik beherakoak)

*Eibarko biztanleriaren ia erdia gure komunitatearen parte da*

---

#### Bazkideak adinaren arabera



*Bazkideen % 31, 41 eta 65 urte arteko tartean dago. Nabarmenezkoa da, halaber, 14 urtetik beherakoen portzentajea, % 21*

---

## Irakurle aktiboak

Irakurle aktiboak 2025ean mailegu-zerbitzua gutxienez behin erabili dutenak dira.

Guztira **3.456** izan dira, 2.032, 14 urtetik gorakoak, eta 1.380 adin horretatik beherakoak. Gainerakoak erakundeak izan dira.

## Bilduma

**90.969** izenburu, **3,31** biztanleko.

Liburuak: 66.080

Aldizkariak: 11.121

Bideoak: 8.156

Diskoak: 4.025

Bestelakoak: 1.587

**Altak 2025ean: 2.769**


### Bajak:

Galdutako dokumentuak: 88

Espurgatuak: 1.791

2025ean Haur Liburutegian liburu asko espurgatu ziren, eta Eibar Palestinarekin elkarteari eman Gabonetako merkatuan saltzeko.

## Eskuratutakoaren jatorria



## Desiratak

- Onartuak: 369
- Tramitatu gabekoak: 1
- Baztertuak: 16

*Guztira 386 liburu erostea eskatu da, eta 369 eskaera onartu dira.*

## Maileguak


Guztira: **39.962**, 2024an baino % 7 gehiago. Egunean, batez beste, **146** mailegu.

Haurrentzako liburuen mailegua: **13.904**


Maileguak euskaraz: **27%**

*Liburuak jarraitzen du izaten maileguen euskarri nagusia.*

Hauxe izan da maileguen eboluzioa azken bost urteotan:




## Helduen atala




*Maileguen % 86 liburuena eta aldizkariena izan da. Beste euskarri batzuetako maileguak gutxiago dira, batez ere musikarena.*

**Umeen atala**




*Haur-bildumaren maileguak % 7ko igoera izan du, 2024koarekin alderatuta. Maileguen % 96 liburuena eta aldizkariena da*

**Dokumentuaren hizkuntzaren arabeko mailegua**




*Maileguen % 27 euskarazko dokumentuak izan dira*

Adinaren arabeko mailegua



Sexuaren arabeko mailegua



***Mailegu-zerbitzuaren erabiltzaileen % 57 emakumezkoak dira***

---

## Helduen atalean gehien lagatakoa

### Euskarazko eleberria



Uxue Alberdi. *Hetero*. Susa, 2024

Karme Jaio. *Aitaren etxea*. Elkar, 2019

Karme Jaio. *Maitasun kapitala*. Elkar, 2023

Amets Arzalluz Antia, Ibrahima Balde. *Miñan*. Susa, 2019

Mariasun Landa. *Krokodiloa ohe azpian*. Alberdania, 2003

Miren Amuriza. *Pleibak*. Susa, 2024

Ibon Martín. *Kaioen ordua*. Susa, 2024

Bernardo Atxaga. *Bi anai*. Erein, 1996

## Gaztelaniazko eleberria



Carmen Mola. *El clan*. Planeta, 2024

Francesca Giannone. *La cartera*. Duomo, 2024

Alana S. Portero. *La mala costumbre*. Seix Barral, 2023

Freida McFadden. *La asistente*. Suma de Letras, 2024

Sonsoles Ónega. *Las hijas de la criada*. Planeta, 2023

Freida McFadden. *La mujer de arriba*. Suma de Letras, 2024

Freida McFadden. *El recluso*. Suma de Letras, 2025

Mikel Santiago. *Cuando llega la noche*. Ediciones B, 2024

## Pelikulak eta telesailak



Juego de tronos. Primera temporada completa. David Benioff & D.B. Weiss  
 Twin Peaks. Serie completa. David Lynch & Mark Frost  
 Outlander. Primera temporada completa. John Dahl  
 El 47. Marcel Barrena  
 Isabel. Serie completa. Jordi Frades  
 Juego de tronos. Segunda temporada completa. David Benioff & D.B. Weiss  
 Titanic. James Cameron  
 Bitelchús. Tim Burton

## Musika



El abrazo. Rozalén  
 Los 40. 40 Principales  
 Sonatas para piano. Ludwig van Beethoven  
 Aaztiyen. Zetak  
 Erdian oraina. Bulego  
 Si abro los ojos no es real. Amaia  
 El presente. Shinova  
 Classic mania

## Haurren atalean gehien lagatakoa

### Euskaraz:



Mario Ramos. *Neu naiz indartsuena*. Tarttalo, 2011

Eric Carle. *Gose biziko beldarra*. Kalandraka-Pamiela, 2023

Tsukumizu. *Girl's last tour*. Kabe, 2023-2025

Katrina Charman. *Oiloa ohean*. Tarttalo, 2024

Rafa Ordóñez. *Zazpi munstro eta katu bat*. Kalandraka, 2023

Julia Donaldson. *Grufaloa txotxongilo-liburua*. Bruño, 2021

Pierre Delye, Cécile Hudrisier. *Goazen lotara!*. Ibaizabal, 2020

Katerina Gorelik. *Bergiratu leihotik!*. Ibaizabal, 2021

## Gaztelaniaz



Noriyuki Konishi. *Yo-Kai watch*. Norma, 2016-  
 Tenya Yabuno. *Inazuma Eleven*. Planeta DeAgostini, 2011-  
 Akira Toriyama. *Dragon Ball Legend*. Planeta Cómic, 2024  
 Raina Telgemeier. *¡Buena idea, Kristy!*. Maeva, 2018  
 Cassandra Calin. *La chica nueva*. Maeva Young, 2025  
 Raina Telgemeier. *Fantasmas*. Maeva, 2020  
 Mr Tan. *¡No me gusta el amor!*. Kómikids, 2023  
 Kayla Miller. *Camp*. Maeva, 2021

### Komikiak protagonista haur-eta gazte-maileguan

## Gehien lagatako filmak



La vuelta al Mundo de Willy Fog. Luis Ballester Bustos, Fumio Kurokawa

Vaiana 2. David G. Derrick Jr.

Amigos imaginarios. John Krasinski

Dragon Ball Z Kai. Yasuhiro Nowatari

Minúsculos. Thomas Szabo, Hélène Giraud

Spider-man. Trilogía completa. Jon Watts

El tren nocturno. Craig Bartlett y Douglas Hansen

Paw Patrol. Charles E. Bastien

## Gehien lagatako musika



Musua. Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Go!azen. Basakabitik mundura

Go!azen. Izar azpian oihuka

Lazy Town.

Go!azen. Maitasun hitzak xuxurlatu

Irrien lagunak. Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

Tipi-Tapa, Korrika!. Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Borobilean. Pirritx, Porrotx eta Marimotots


### Liburutegien arteko mailegua

Zerbitzu hau gure erabiltzaileek eskatu eta gure liburutegian ez ditugun liburuak beste liburutegi batzuetatik eskuratzean datza. Era berean, gure bildumako liburuak beste liburutegi batzuetara bidaltzen ditugu.

#### 2025eko datuak:

- Beste liburutegi batzuei lagatako dokumentuak: **2.471** (horietako hiru Saretik kanpo: bi Salamancako Unibertsitateko Liburutegira eta bestea Badajozeko Liburutegi Publikora)
- **Eskatutako** dokumentuak: **2.294** (horietako bost Saretik kanpo: bat, Nafarroako Liburutegi Publikora, bi Altsasuko liburutegi Publikora, beste bat Iruñeko Yamaguchi liburutegira eta azkena Salamancako Unibertsitateko Liburutegira)

***Guztira, 4.765 dokumentu trukatu dira, gehienbat, liburuak.***



***Eskaera handia duen zerbitzua da, urtetik urtera hazten ari dena.***

### Automailegu-zerbitzua

Automaileguko makinan egindako maileguak **1.615** dokumentu izan dira, **1.354** lagunek eginak. Zerbitzu hau ilararik egin nahi ez duten eta anonimotasuna nahiago duten erabiltzaileentzako da, baina ez du funtzionatzen bazkide-txartelak zigorren bat badu liburuak epez kanpo itzultzeagatik.




### eLiburutegia mailegu digitaleko zerbitzua

eLiburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiek eskaintzen duten zerbitzua da, eta Internet bidez eduki digitalak irakurtzea errazten duen plataforma bat da, bai streaming bidez, bai ordenagailuan edo gailu mugikorretan. 2018az geroztik zinema eta ikus-entzunezkoak online ikusteko aukera ere ematen du. 2021az geroztik aldizkariak ere sartu dira. Hasiera-orria hau da: [www.eliburutegia.euskadi.eus](http://www.eliburutegia.euskadi.eus).

Zerbitzu hau erabili ahal izateko Sareko edozein liburutegitako bazkide-txartela baino ez da eduki behar.

2025ean **35.720 liburu** zeuden deskargatzeko moduan.

Guztira, **1.562 liburu** deskargatu dira Eibartik; kopurua txikiagoa da 2024koarekin alderatuta.






2025ean, **239** pertsonak erabili dute plataforma **era aktiboan**, 2024an baino gutxiago.

*2025ean 89 lagun gehitu dira zerbitzu honetara*

### Mailegatuenak gazteleraz / Los más prestados en castellano

|  |                                                                       |  |                                                         |  |                                                                                                |  |                                                       |
|--|-----------------------------------------------------------------------|--|---------------------------------------------------------|--|------------------------------------------------------------------------------------------------|--|-------------------------------------------------------|
|  | <b>La península de las casas vacías</b><br>David Uclés<br><b>1269</b> |  | <b>Alma negra</b><br>Ibon Martín<br><b>793</b>          |  | <b>Las que no duermen NASH</b><br>Dolores Redondo<br><b>716</b>                                |  | <b>El Clan</b><br>Carmen Mola<br><b>585</b>           |
|  | <b>El niño que perdió la guerra</b><br>Julia Navarro<br><b>528</b>    |  | <b>Victoria</b><br>Paloma Sánchez-Garnica<br><b>522</b> |  | <b>El albatros negro</b><br>María Oruña<br><b>498</b>                                          |  | <b>Invisible</b><br>Eloy Moreno<br><b>492</b>         |
|  | <b>La asistenta</b><br>Freida McFadden<br><b>486</b>                  |  | <b>Todo muere</b><br>Juan Gómez-Jurado<br><b>455</b>    |  | <b>La saga de los longevos 1. La vieja familia</b><br>Eva García Sáenz de Urturi<br><b>435</b> |  | <b>Un animal salvaje</b><br>Joël Dicker<br><b>328</b> |

## Mailegatuenak euskaraz / Los más prestados en euskera

|                                                                                   |                                                                             |                                                                                   |                                                                          |                                                                                   |                                                             |                                                                                     |                                                                                |
|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------|
|  | <b>Maitasun kapitala</b><br>Karmele Jaio<br><b>332</b>                      |  | <b>Pleibak</b><br>Miren Amuriza<br><b>297</b>                            |  | <b>Hetero</b><br>Uxue Alberdi<br><b>281</b>                 |  | <b>Miñan (ePub)</b><br>Amets Arzallus,<br>Ibrahima Balde<br><b>253</b>         |
|  | <b>Aitaren etxea</b><br>Karmele Jaio<br><b>203</b>                          |  | <b>Asterix Galiarra</b><br>René Goscinny;<br>Albert Uderzo<br><b>179</b> |  | <b>Ezekiel</b><br>Jasone Osoro<br><b>173</b>                |  | <b>Miñan (audioliburua)</b><br>Amets Arzallus,<br>Ibrahima Balde<br><b>150</b> |
|  | <b>Asterix Gladiadorea</b><br>René Goscinny;<br>Albert Uderzo<br><b>137</b> |  | <b>Maren</b><br>Alaine Agirre<br><b>134</b>                              |  | <b>Amorante frantsesa</b><br>Miren Agur Meabe<br><b>131</b> |  | <b>Libe</b><br>Alaine Agirre<br><b>118</b>                                     |

**Aldizkari digitalen erabilerari dagokionez, hauek dira Sareko datu orokorrak:**

### 1. Funtsa:

Aldizkariak guztira: 15.255

### 2. Maileguak

Maileguak guztira: **2.706**

### 3. Erabiltzaileak:

- Erabiltzaile aktiboak: 859 (2025ean mailegu-zerbitzua erabili dutenak dira)
- Erabiltzaile berriak: 1.871 (zerbitzu hau lehen aldiz 2025ean erabili dutenak dira)
- Erabiltzaileak: 7.633 (zerbitzuaren hasieratik mailegu-zerbitzua erabili dutenak dira)

Jarraian, **2023ko eFilm plataformaren datuak**. Datu orokorrak dira, Irakurketa Publikoaren Sareko erabiltzaile guztienak, ezin dira liburutegika banatu:

### 1. Funtsa:

Ikus-entzunezkoak guztira: 6.379

### 2. Maileguak

- a. Maileguak guztira: 8.324
- b. Gehien lagatako izenburuak:

|    | IZENBURUA                     | MAILEGU KOPURUA |
|----|-------------------------------|-----------------|
| 1  | La delicadeza                 | 112             |
| 2  | Amélie                        | 87              |
| 3  | El 47                         | 81              |
| 4  | Herida                        | 71              |
| 5  | En un mundo mejor             | 50              |
| 6  | El juego del amor             | 49              |
| 7  | El regreso de las golondrinas | 49              |
| 8  | Si Dios quiere                | 47              |
| 9  | Lo que el día debe a la noche | 47              |
| 10 | La sociedad literaria         | 47              |

### 3. Erabiltzaileak:


- a. Erabiltzaile aktiboak: **1.630** (2024an mailegu-zerbitzua erabili dutenak dira)
- b. Erabiltzaile berriak: **2.537** (zerbitzu hau lehen aldiz 2023ean erabili dutenak dira)
- c. Erabiltzaileak: 24.983 (zerbitzuaren hasieratik mailegu-zerbitzua erabili dutenak dira)

## Interneten eta Ikasketa Gelaren zerbitzua

**4.125 lagunek** erabili dituzte Liburutegiko ordenagailuak Interneten sartzeko.

Ikasketa gela 3.492 lagunek erabili dute. Gela hau zabalik egoten da Liburutegia eguerdian ixten denean, eta larunbat eta igande arratsaldeetan itxita dagoenean.

### Sare sozialak<sup>2</sup>:



<sup>2</sup> Ez ditugu X edo Twitter sare sozialeko datuak, jarraitzaileak bakarrik.


*Interakzio handiagoa lortzen dugu Instagram sarean Facebook, X edo Youtuben baino.*

---

X sarean **877** jarraitzaile ditugu.


## Impresiones

📅 Eibarko Liburutegia



## Interacciones

📅 Eibarko Liburutegia



*Gehien ikusi diren bideoak Giza Liburutegia jarduerarako grabatutakoa eta 2024ko memoria dira*

---

## Umeen liburutegiko bloga

Umeen Liburutegiko blogaren emaitzei dagokienez, igoera egon da 2024koarekin alderatuta.



*Gehien kontsultatu dena: Albisteen, gomendioen eta nobedadeen atala*

---

## Web-orria

Web-orriaren gaztelerazko bertsioak (<https://www.eibar.eus/es/cultura/biblioteca>) **5.180** bisita izan zituen, **2.716** erabiltzaile aktiborekin eta web-orria lehen aldiz kontsultatu duten pertsonak **2.040** izan dira.

Gehien kontsultatutako atalak hauek izan dira: ordutegia, katalogoa, irakurketa-kluben inguruko informazioa, mailegu digitala (eLiburutegia), Jose Antonio Artamendi Muguerza Funtsa eta liburuen, pelikulen eta musikaren nobedadeak.

Web-orriaren euskarazko bertsioak (<https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia>) **1.813** bisita izan zituen, **1.484** erabiltzaile aktiborekin eta **2.040** erabiltzaile berri.

Gehien kontsultatutako atalak: ordutegia, haurren irakurketa-gidak, katalogoa, argitalpenak, irakurketa errazeko interesgunea.

### **OPAC katalogoan egindako kontsultak**

**10.795** bilaketa egin ziren, 2024an baino % 11,6 gutxiago.

### **Antolatutako jardueretan izandako parte-hartzea**

**214** saio egon dira, **2.807** parte-hartzaileekin.

Hauek hartzen dira kontuan: irakurketa-klubak, hizkuntzak praktikatzeko bilerak, bisita gidatuak, ipuin-kontalariak, etab.

***Parte-hartzea % 7,26 handiagoa izan da***

---


## 4. Ekonomia-gestioa

### Bilduma

- Liburuak: **21.738 €**
- Prentsa: **6.470 €**
- Aldizkariak: **3.081 €**
- Ikus-entzutezkoak: **4.926 €**

*Bilduman gastatutakoa, guztira: 36.215*

---



### Finantzaketa

Udalak: **22.661 €**


Eusko Jaurlaritzak: **13.554 €**

### Irakurketa bultzatzeko jarduerak

- Irakurketa-klubak (Azalerako Ipuinak, Liburuen poltsa, Paperezko Hegoak, Idazlearekin harixa emoten, gaztelerazko Irakurketa-Kluba): **14.344 €**
- Ipuin-kontalaria (Zapatuko ipuina): **2.563 €**
- Itsapeko bihotzak izeneko erakusketa didaktikoa: **1.525 €**
- Liburuaren Eguna: **631 €**
- Hizkuntza praktikatzeko saioak (Meetings at the Library, Réunions dans la Bibliothèque): **3.988 €**
- Giza Liburutegia (kartela): **194 €**
- Liburutegien Eguna: **1.500 €**

### *Irakurketa bultzatzeko gastua, guztira: 24.745 €*

---



#### **Finantzaketa**

Udalak: **20.664 €**

Eusko Jaurlaritzak: **4.081 €**

#### **Teknologia eta ekipoen mantentze-lanak.**

- Lupa adimenduna: **850 €**
- Ekipoen mantentze-lanak:
  - RFID sistema eta lapurreten aurkakoa: **2.894 €**
  - Interneterako sarbide publikorako sistema: **1.525 €**
  - Eskanerra **226 €**

### *Ekipoen gastua, guztira: 5.495 €*

---

#### **Finantzaketa:**

Udalak: **4.731 €**

Eusko Jaurlaritzak: **764 €**

#### **Eibar Aldizkaria argitaratzeko dirulaguntza**

**2.0**

## 5. Jasotako formakuntza

2025ean gai hauen inguruko formakuntza egin dugu:

**Pentsamendu ludikoa, jolasa eta gamifikazioa liburutegietan**, Donostian izan zen maiatzean, ALDEE elkarteak antolatuta. **Ana Ordás Garcíak** eman zuen.

**FESABID Jardunaldi Profesionalak (JEID 2025)**, Gasteizen izan ziren, ekainean, ALDEE Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarteak antolatuta.

**Bildumaren kudeaketa: bilduma osatzeko eta garbiketa egiteko irizpideak liburutegietan**. Bilbon izan zen ekainean, ALDEEK antolatuta eta **Lluís Agustí Ruizek** eman zuen.

**Informazioaren eta Dokumentazioaren inguruko kudeatzaileen XI. Jardunaldia**. UEUK eta ALDEEK antolatuta, Eibarren egin zen uztailan eta gai honi heldu zion: “Euskal Liburutegi nazionala: iragana, oraina eta etorkizuna”.

Abenduan **Liburutegi Publikoa eta Eskola Liburutegia: ezinbesteko lankidetzak?** jardunaldian egon ginen, Donostian egin zen, ALDEEK antolatuta. **Dolors Madeok** eman zuen, eta Markina-Xemeingo liburuzain **Igor Idoetaren** eta Nafarroan liburuzaina den **Idoia Sobrinoren** ekarpenak ere izan ziren.

Horiez gain, Udalak garrantzitsutzat jo zuen oinarritzko formakuntza jasotzea genero-berdintasunean eta “**Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko oinarritzko prestakuntza**” ikastaroa eman zuen. **Idoia Eizmendi Aldasorok** eman zuen apirilean.

6. Zeintzuk garen



**EIBAR**  
Juan San Martin Liburutegia  
Biblioteca Juan San Martín

**BIBLIOTECA  
JUAN SAN MARTIN  
LIBURUTEGIA**

---

 943 70 84 37  
 [liburutegia@eibar.eus](mailto:liburutegia@eibar.eus)  
 Bista Eder, 10-1  
 <https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia>

Ekipoa

- Eva Alberdi Zubiaurre
- Elixabete Cid Vázquez
- Yolanda Isla Gómez
- Oihane Mendizabal Saratxu
- Izadi Poza Casares
- Asier Sota Jaimerena
- Lierni Urbistondo Elduaen

|                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                            |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------|
| Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): <b>118846a662c7ddaceaa161a66f6a9f7c315d11bd</b><br>Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: <b>DS-202600001081</b><br><a href="https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do">https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do</a> |                            |
| Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:                                                                                                                                                                                                                          | Data / A día:              |
| <b>EVA MARIA ALBERDI ZUBIAURRE</b>                                                                                                                                                                                                                                                            | <b>25/02/2026 08:54:17</b> |

